



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 21a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00187. Galdera, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzute aldera langile autonomo laguntzaileei emandako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-23/PES-00205. Galdera, Muesko presa erromatarraren aztarnategiaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-23/PES-00206. Galdera, Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-23/PES-00207. Galdera, justizia errestitatiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestitatiboaren batzordei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-23/PES-00208. Galdera, unibertsitate-gradu berrien legezko eta administratiboko aitortzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00209. Galdera, Sadar kaleko 3.aren parean dagoen lurzatiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00210. Galdera, SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik egindako kudeaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00211. Galdera, sozietateen gaineko zergaren kenkariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00212. Galdera, euri- eta kazkar-ekaitzek ukitutako udalerriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00213. Galdera, Gerra Zibilean Errepublikaren hegazkinen bonbardaketen biktima zibilei errekonozimendua emateko ekitaldiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-23/PES-00214. Galdera, Rural Domus proiektu pilotuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00215. Galdera, Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-23/PES-00216. Galdera, esnearen produkzio-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-23/PES-00217. Galdera, Tafallako suhiltzaile-etxe berriaren lanen lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-23/PES-00218. Galdera, 4/2022 Foru Legean jasota datozen tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarrirako proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-23/PES-00219. Galdera, tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarrirako proiektuetarako lursailen poltsa bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-23/PES-00220. Galdera, NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuo enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-23/PES-00221. Galdera, Nafarroako enpresa publikoek Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-23/PES-00222. Galdera, Telefónicaren enplegu-erregulazioko espedienteak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-23/PES-00223. Galdera, “Identifikazio biometrikoko Wallet-a” ezartzeko aukera aztertzeo proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00187. Galdera, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzute aldera langile autonomo laguntzaileei emandako laguntzei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzute aldera langile autonomo laguntzaileei emandako laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak galdera egin du, idatziz erantzutetako (11-23/PES-00187), honakoei buruz:

- Deialdi honetan oinarriturik eskatutako eta emandako laguntzen kopurua.
- Langile autonomo laguntzailearen figurari buruzko eskabide aurkeztu eta onartuen kopurua.
- Itzulketa-eskabideen kopurua, langile autonomo laguntzaileen kasuan, bai eta itzultzeko eska-riaren arrazoiak ere.

Honako honen berri ematen dut:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren maiatzaren 13ko 17/2020 Foru Aginduaren bitartez prozedura bat ezarri zen, apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuan langile autonomoentzat ezartzen diren laguntzak emateko. Foru Lege-dekretu hori aho batez onetsia izan zen Nafarroako Parlamentuan, eta horren bidez premia- neurriak onetsi ziren, COVID-19 koronabirusaren osasun-krisiak eragindako inpak-

tuari erantzutetakoak (108. NAO, 2020ko maiatzaren 21ekoa).

Aipatu laguntzak bi motakoak ziren, eta 3 zenbateko posiblekoak:

a) 2.200 euroko laguntza, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko neurri urgente eta bereziei buruzkoak, 17. artikuluan arauturiko prestazio berezia aitortua izan zaienentzakoak.

b) 700 euroko laguntza, aipatu prestazio berezia lortu ez, eta foru agindu horretako 2. artikuluko 2.1.2. apartatuko b) letran zehazturiko epeetan osasun-krisia dela-eta gutxienez ehuneko 30eko fakturazio-murrizketa pairatu dutenentzakoak.

Nolanahi ere, laguntza hori 800 eurorainokoa izan zitekeen, eskatzailea zein familia-unitatetako den, unitate horren kide guztien errendimendu garbien baturaren arabera, foru-aginduaren 3.2 artikuluan adierazten zen bezala.

Egoera presakoa izateagatik, laguntza horiek aurretiazko kontu-hartzetik salbuetsita zeudela deklaratu zen, eta horrenbestez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuak a posteriori eginiko kontrolari lotuta geratu ziren.

Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren 16 ebazpenen bitartez, zeinak 2020ko ekainetik irailera bitartean sinatu baitziren, onartu eta ordaindu ziren laguntzak.

Onartutako laguntzaren zenbatekoa	700	800	2.200	GUZTIRA
Onuradunak	403	314	10.640	11.357
Guztizko zenbatekoa, eurotan	282.100	251.200	23.408.000	23.941.300

Deialdiaren foru aginduko 7.1.b) artikuluan xedatzenenez, 2.200 euroko laguntza lortzen zuten pertsonak Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean alta emanda egon behar zuten, baita Nafarroako ekonomia-jardueren gaineko zergan ere, 12 hilabetez, 8/2020 Errege Lege-dekretuko 17. artikuluko prestazio bereziaren amaieraren biharamunetik aurrera.

Horrek esan nahi zuen 2.200 euroko laguntzaren onuradunek 2021eko ekainaren 30era arte iraun behar zutela altan Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean eta Nafarroako ekonomia-jardueren gaineko zergan. Iraute-betebehar hori urratuz gero, onuraduna behartuta zegoen bete gabeko epeari zegokion laguntza-parte proportzionala itzultzeraz.

Lan Zerbitzuak kasuko urratsak egin zituen, eta horien emaitza izan zen ezin egiaztatzea, 704 onuradunen kasuan, ea langile autonomoen araubide berezian eta ekonomia-jardueren gaineko zergan irautearen betebeharra bete ote zen.

Ondorioz, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren abuztuaren 1eko 381/2023 eta abuztuaren 21eko 430/2023 ebazpenen bitartez, hasiera eman zi-

tzaion laguntza-onuradunetako 704ren itzulketa-prozedurari. Onuradun bakoitzari helarazi zitzaion ebazpena, bai eta hark eginiko eskaerari buruzko informazioa ere.

704 pertsona dira, 11.357 onuradunen artetik, itzuli beharreko guztizko zenbatekoa 986.136,44 eurokoa dutenak; hots, emandako laguntzaren 23.941.300 euroen % 4,12.

Itzulketa-prozedura hasi zitzaizen eska-tzaileetatik, 29k adierazi dute lankide autonomoak direla. Horiei oker baten ondorioz onartu eta ordaindu zitzaizen laguntza, ez baitzuten betetzen ekonomia-jardueren gaineko zergan alta hartuta izatearen betekizuna. Ondorioz, itzulketa-prozedura amaitu eta laguntza itzultzearen bidetik joan beharra gertatzen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 13an

Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00205. Galdera, Muesko presa erromatarraren aztarnategiaren egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Muesko presa erromatarraren aztarnategiaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 24ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz hartuko dituen neurriak Muesko presa erromatarreko aztarnategian eratzen utzi den narriadura- eta utzikeria-egoerari aurre egiteko (11-23/PES-00205). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

–Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak ez du jotzen aztarnategia narriadura- eta utzikeria-egoeran dagoenik. Gure iritziz, ohar hori ez dago datuetan oinarrituta, ezta ondare ebidentzian nahiz ebidentzia arkeologikoe-tan ere.

Urteotan zehar, lurraren jabetza pribatuarekin eta Udalarekin izandako elkarlanaren bitartez, Muesko presa erromatarraren aztarnategia identifikatu da, data jarri zaio, kokapena zehaztu da, zientifikoki aztertu da, kontserbatu da eta zabal-kundea eman zaio.

Halaber, eta Udalari duela zenbait hilabete jakinarazi zizaionez, une honetan amaitzen ari da analitikak egiten; Ondare Historikoaren Zerbitzuak finantzatu ditu, induskatze kanpainetan hartutako laginak aztertu dira (sedimentuak, dendrokronologia, epigrafia, besteak beste), eta aukera emanen dute presa horren datazioa eta testuingurua hobeto ezagutzeko. Horretan guztian egiten ari da lan induskatzea egin zuen arkeologia enpresarekin batera.

Ikerketa horietatik aterako dira presa kultur intereseko ondasun deklaratzeko eskaerarekin batera eman behar den justifikazio txostenaren datuak; une honetan lehentasunezkoa da Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiarentzat. Ondare Historikoaren Zerbitzuak, Barzuzua enpresarekin batera, txostena eginen du eta babesari buruzko espedientea hasiko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 13an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-23/PES-00206. Galdera, Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko mozioaren betetze-mailari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko mozioaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 1eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak 11-23/PES-00206 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau: "Nafarroako Gobernuak zer egin du eta zer egingen du Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki-proposameneko bigarren, hirugarren eta laugarren puntuetan xedatutakoa betetzeko?". Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Ondasun horien zerrendari, guztien inbentarioari eta Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeari dagokionez, pertsona fisiko nahiz juridikoen kontsultatu ahal izateko, jakinarazten da ezen, Justizia Zuzendaritza Nagusian dauden datuen arabera, zerrenda hori Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Nafarroako Parlamentuari aurkeztu eta entregatu ziola 2021eko azaroaren 23an, alderdi eskatzaileak berak informazio eskaeran bertan adierazten duenez.

Ildo horretatik, zerrenda horretan jasotzen dira Eliza katolikoak Nafarroan immatrikulatutako

2.952 ondasunak, zerrenda Migrazio Politiketako eta Justiziako Zuzendaritza Nagusiak (egun, Justizia Zuzendaritza Nagusia) denboran zehar jasotako beste hainbeste ohar soilen bidez eratu zen. Bilketa hori Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen 2022ko martxoaren 4an, navarra.es webgunean egiaztatzen ahal denaren arabera, kontsultatu ahal izateko, ohar soilak eskuratzeko sarbide irekia emanda.

Nafarroako Gobernuak toki entitateen ondasun komunalak existitzeko aukera aztertze eta inskripzio orrien eta zerrenden inguruko aholkularitza emateko eta kontsulta egiteko bulego bat irekitzeko egindako jarduketei buruz Justizia Zuzendaritza Nagusiak ezin du gehiagorik eman behin aipatutako zerrendak amaitu ostean. Hala ere, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiakera egin zuen azterketa bat abiarazteko balizko ondasun komunal immatrikulatuen inguruan, eta juridikoki ondorioztatu zen ondasun komunalak defendatzeko eta berreskuratzeko eskumena ez dela Nafarroako Gobernuarena, toki entitateena baizik. Hori horrela, Foru Legebiltzarrek ez du eskumenik ondasun komunal horien egoera juridikoaren inguruko azterketa hori haste; aitzitik, eskumena dute ukitutako toki entitateek.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

11-23/PES-00207. Galdera, justizia errestituratuaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratuaren batzordeei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu izurdiaga Osinaga andreak justizia errestituratuaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratuaren batzordeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 1eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00207) Justizia Errestituratuaren Batzordeari eta Jardunbide Errestituratuaren Batzordeari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz eman dion informazioa:

Eratu al dira Justizia Errestituratuaren Batzordea eta Jardunbide Errestituratuaren Batzordea?

Justizia Errestituratuari, Bitartekaritzari eta Jardunbide Errestituratu Komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru legeak 52. artikuluan ezartzen duenez, Justiziako eskumenak dituen departamentuak jarduketak koordinatuko ditu beste erakunde esanguratsu batzuekin Nafarroako Justizia Kontseiluko lantalde hauek sortuta eta sustatuta:

- Justizia Errestituratuaren Batzordea.
- Bitartekaritza Batzordea.
- Jardunbide Errestituratuaren Batzordea.

Aipatutako legearen erregelamendu bidezko garapena abiarazte aldera, Departamentuak Justizia Errestituratuaren Batzordea eta Bitartekaritza Batzordea sortu zituen, eta gerorako utzi zuen Jardunbide Errestituratuaren Batzordea.

Hori dela eta, Nafarroako Justizia Kontseiluak azaroaren 24an izandako saioan Justizia Errestituratuaren Batzordea eta Bitartekaritza Batzordea sortu ziren.

Zer pertsonak edo entitatek osatzen dituzte batzorde horiek?

Justizia Errestituratuaren Batzordea	Izendatutako pertsona
Epaileak	José Francisco Cobo Saénz
Justizia Administrazioaren abokatuak	Isabel Labrador Gimeno
Nafarroako fiskaltza	Ana Marcotegui y Elena Cerdán
Nafarroako Psikologoaren Elkargo Ofiziala	María Teresa Ruiz Aquerreta
Nafarroako Gizarte Lanaren Elkargo Ofiziala	Amaia Munarriz Azcárate

Iruñeko Abokatuen Elkargoa	Belén Iribarren Gasca
Lizarrako Abokatuen Elkargoa	Rogelio Andueza
Tafallako Abokatuen Elkargoa	Enrique Sanzol Escudero
Tuterako Abokatuen Elkargoa	Belén Echave
Nafarroako Bitartekaritzaren Elkartearantzako dirulaguntza	María Rovira Aristu

Bitartekaritza Batzordea	Izendatutako pertsona
Epaileak	María Francisca Gómez Soriano
Justizia Administrazioiko abokatuak	Juan Alfonso Pérez Ruíz
Nafarroako fiskaltza	María Cruz García
Nafarroako Psikologoek Elkargo Ofiziala	María Teresa Pascual Vergara
Nafarroako Gizarte Lanaren Elkargo Ofiziala	José Antonio Villanueva Oyarzabal
Nafarroako Ekonomisten Elkargoa	Ángel Luis Chocarro Ábalos
Iruñeko Abokatuen Elkargoa	Miguel Martínez de Lecea
Lizarrako Abokatuen Elkargoa	Rogelio Andueza
Tafallako Abokatuen Elkargoa	Saioa Torres Zubiri
Tuterako Abokatuen Elkargoa	Belén Echave
Prokuradoreen Elkargoa	Andrea Leache López
Graduatu Sozialen Elkargoa	Juan Luis Gómez López eta David Delgado Ramos

Hasi al dira foru legea garatzeko arauak taxutzeko lanak?

Hasi al dira foru legea garatzeko arauak taxutzeko lanak? Aurreikusten da 2024ko urtarrilean partekatu ahal izatea laneko dokumentu bat aipatutako batzordeekin.

Hori guztia informatzen dugu, behar diren eraginetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

11-23/PES-00208. Galdera, unibertsitate-gradu berrien legezko eta administraziozko aitortpenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak unibertsitate-gradu berrien legezko eta administraziozko aitortpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 1eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Miguel Garrido Sola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00208), unibertsitateko gradu berrien legezko errekonozimenduari eta errekonozimendu administratiboari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak autoantolakuntzako ahala duela, Nafarroako Foru Komunitateko Administra-

zioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 4 a) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori horrela, ahal horren barruan kokatzen da berorren plantilla organikoa osatzen duten askotariko lanpostuak eskuratzeko exijitzekoak diren titulu akademikoak zehatzea.

Administrazio publikoko teknikariaren lanpostura (Arlo Juridikoa) sartzeko prozedurari dagokionez, Graduak tituluak onartzen dira, baita aurretik egondako Lizentziaturak ere Zuzenbidearen esparruan.

Azkenik, kontuan hartu behar da aipatu den Administrazio Publikoetako Zientzia Juridikoen Graduak ez dituela barne hartzen Zuzenbideko Graduak dituen ezagutza eta gaitasun berberak; izan ere, lehenengoaren edukia murriztuagoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

11-23/PES-00209. Galdera, Sadar kaleko 3.aren parean dagoen lurzatiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Sadar kaleko 3.aren parean dagoen lurzatiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 1eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galde-

ra egin du, Sadar kaleko 3. zenbakiaren inguruan kokatutako partzelari buruz (11-23/PES-00209). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Aipatzen duzun partzela bat dator 5. industrialdeko 1037 katastro partzelarekin. Partzela hori EZ da Foru Komunitatearen jabetzakoa, partikular batena baizik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-23/PES-00210. Galdera, SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik egindako kudeaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak SAREB enpresa kudeatzailearekin 2019. urteaz geroztik egindako kudeaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 1eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du

(PES-11-23/00210). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Aldez aurreko bilera bat bakarrik egin zen, 2023ko urriaren 31n, erabilgarri zeuden higiezinen inbentarioari buruzko eta aurreko taldearekin jorratutako gaiei buruzko informazioa biltzeko. Oraingoz ez da ez jarrerarik ez neurririk hartu. Eta, antza, aurretik ez da ekintzarik edo konpromisorik egon”.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-23/PES-00211. Galdera, sozietateen gaineko zergaren kenkariei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak sozietateen gaineko zergaren kenkariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 1eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du –2023ko

azaroaren 27ko 5344 irteera-zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– sozietateen gaineko zergaren kenkarien inguruko zenbait gairi buruz (11-23/PES-211). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

2019ko ekitaldira arte ez zen finantzaizailearen irudia existitzen (65.bis artikulua). Finantzaizaileari eskualdatu ez zaizkion kenkariak ekoizleak edo IETko bazkideek aplikatzen dituzte (arestian aipatutakoa 2019/01/01 baino lehen hasitako ekoizpenetarako soilik).

Banakako deklarazioak egin dira (ez da finkatu)

Datuak eskuratzeko data: 2023ko abenduaren 14a.

	Sortutako kenkaria	Onuradunak (ekoizlea/bazkideak)	Finantzaizaileari eskualdatua	Onuradunak (finantzaizailea)	Ekoizlea/Bazkideak
2016	s.e.	s.e.			s.e.
2017	8.302.963,08	7			8.302.963,08
2018	8.379.798,69	14			8.379.798,69
2019	5.603.518,48	13	s.e.	s.e.	s.e.
2020	4.741.069,17	13	4.627.826,85	22	113.242,32
2021	3.262.001,52	11	2.955.969,99	23	306.031,53
2022	3.694.262,13	17	3.188.575,51	29	505.686,62

s.e.: sekretu estatistikoa. Aitortzaileen kopurua: lau baino gutxiago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00212. Galdera, euri- eta kazkabar-ekaitzek ukitutako udalerrii buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak euri- eta kazkabar-ekaitzek ukitutako udalerrii buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du euri nahiz txingor ekaitzek kaltetutako herrii buruz (11-23/PES-00212). Hona hemen

Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

“Irailaren 14ko prentsa ohar batean, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen Lurralde Kohesiorako Departamentuak foru agindu bat emanen zuela euri nahiz txingor ekaitzek zer herri kaltetu dituzten mugatzeko.

a) Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer epe ezarri dio bere buruari foru agindu hori emateko?”

Honako hau jakinarazten da: jada emanda dago. NAO 2023ko azaroaren 24an argitaratutako urriaren 27ko 73/2023 Foru Agindua da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-23/PES-00213. Galdera, Gerra Zibilean Errepublikaren hegazkinen bonbardaketen biktima zibilei errekonozimendua emateko ekitaldiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak Gerra Zibilean Errepublikaren hegazkinen bonbardaketen biktima zibilei errekonozimendua emateko ekitaldiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte jaunak PES-213 galdera egin du, honako hau:

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak ziur al daki Franco jeneralaren diktaduran zehar omenaldi edo errekonozimendu ekitaldi berariazkorik egin izana Errepublikaren abiazioak Gerra Zibilean egindako bonbardaketa terroristetako biktima zibilei? Departamentuak ba al daki biktima horiei oroitzapenezko arkitektura elementurik eskaini ote zitzaizen?

Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

PES 160an beste gai baten kontura komenta genizunez, jakina da Gobernu honek, oro har, eta Departamentu honek, bereziki, konpromiso argia eta nabaria erakutsi dute bake bizikidetzaren alde, indarkeria oro deslegitimatzearen alde, biktimen aintzatespenaren eta erreparazioaren alde, eta giza eskubideen eta giza duintasunaren alde. Memoria integral kritiko, erreparadore eta justu baten alde lan egitea da kontua, etorkizun bake-tsu eta komun bat eraikitzeko, eta, nire ustez, ezin da horri buruzko zalantzarik egon.

Printzipio orokor hori argi utzita —azken legealdietako akordio programatikoetan jasota eta gaur egungo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko gure jarduketetan zeharka presente dagoena— egia da jarduketa horiek dagokien eta indarrean dagoen arau esparruan garatu behar direla, egunean eraginkor egitea ahalbidetzen baitute. Ildo horretatik eta dakizunez, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 1. artikulua xedea honako hau da: 1936ko uztailaren 18an izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituzten edo errepresio frankistaren biktima izan ziren pertsonen memoria historikoa berreskuratzea, eraildako pertsonen memoria leheneratuz, aitortuz eta bere onera ekarriz, bai eta haurtxo-lapurketaren jokabidearen biktimena ere.

Hori da Departamentu eta Gobernu hau egiten ari direna —beste jarduketa batzuk ere aztertu ahal izateari kalterik egin gabe— gure eskumen, denbora eta espazio esparruan, eta hori bateragarria da edozein ekintza bortitz eta edozein biktimaren hilketa arbuizatzearekin, hasieran eta berriro esaten dudana bezala.

Hau da gure departamentuaren jarduketa eremua. Zure galderaren eduki zehatzak —adjektiboak alde batera utzita— lotura du ikerketa historio-grafiko batekin eta gaur egun ez dut departamentuan horri buruzko dokumentaziorik. Dena dela, badago edota eskuratzen bada, interesgarria izan daiteke aztertzeke eta dibulgazioaren, hezkuntzaren eta abarren esparruan jarduketaren bat egiteko, gerrek biztanlerian dituzten ondorio suntsitzaileei buruz garatzen ari diren beste lan-ildo batzuen esparruan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 2an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-23/PES-00214. Galdera, Rural Domus proiektu pilotuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Rural Domus proiektu pilotuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Rural Domus proiektu pilotuari buruz (11-23/PES-00214). Hona hemen horri buruz ematen dudana informazioa:

Eskubideko Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak Rural Domus proiektua sustatu du zainketen arloan profesionalak falta direla ikusi baita, funtsean landa eremuetan eta zehazki etxeetan laguntza emateko. Gizarte Zerbitzuen Zorro orokorrak (69/2008 Foru Dekretua) bermatutako prestazio gisa jasotzen ditu mendekotasuna duten pertsonak etxean egoteko laguntza ekonomikoak eta pertsona horien zaintzaileentzako laguntza, eta prestazio horren barruan sartzen da zerbitzu bat kontratatzeko laguntza ekonomikoaren modalitatea (pertsona edo zerbitzu enpresa batena).

Dirulaguntzen kudeaketan ikusi da mendekotasuna duten pertsonen zailtasunak dituztela zerbitzu horiek egiteko pertsonak aurkitzeko, are gehiago arauak eskatzen duen prestakuntza duten pertsonak aurkitzeko. Gainerako autonomia erkidegoetan ere profesionalak falta dira zainketen arloan. Errealitate horretatik, Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua 2023an jarri zen harremanetan sektoreko erakunde eta enpresekin, langileak erakaritzaketen ekintza proposamenak eta balizko proiektuak jasotzeko, gizarte-ekonomiako formulak eta kooperatibak ere kontuan hartuta, langileei protagonismoa emateko eta landa eremuetan lana aurkitzeko. Hortaz, Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak sustatu du proiektua.

Momentu honetan ez dago sinatutako hitzarmenik Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren eta Rural Domus proiektua kudeatzen duten erakundeen artean, baina beharrezkoa bada eginen da.

Azaldu den legez, beharrezkoa sortu da Departamentuak berak egindako ikerketa baten ondorioz, izan ere, mendekotasuna duten pertsonen etxeetan laguntza profesionalak aurkitzeko hautemandako zailtasuna ikusi da. Ikerketa hori COMUNAL: innovación social para el bien común deitzen da, Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiak egin zuen eta honako esteka honetan aurki daiteke:

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/es/estudios/comunal-innovacion-social-para-el-bien-comun-de-navarra-propuesta-para-la-puesta-en-marcha-de-tres-ecosistemas-de-emprendimiento-e-innovacion-social-en-navarra/es-553080/>

Proiektuaren helburua da zainketen esparruan lan egin nahi duten pertsonak biltzea eta horiek prestatzea, ez bakarrik zaintzarako beharrezkoak diren ezagutza instrumentaletan, baita funtsezko printzipio etikoetan eta pertsonarengan oinarritutako arreta eremuan ere, eredu hori ematen diren zerbitzu guztietara hedatzen joateko, ez bakarrik egoitza zerbitzuetara edo eguneko zentrokoetara. Sektorean lanerako prest dauden pertsonen eta prestatutako pertsonen kopurua handitzeak, jakina, emandako zainketen hobekuntza ekarri behar du.

Ekimen hori iraupen luzeko zainketak eraldatzeko estrategia orokorrako baten parte da. Estrategia horrek gaur egun ingurune komunitarioan ematen diren zainketak berrikustea eta ezarri behar diren baliabideak definitzea eskatzen du, nahi duten pertsonak euren etxean gera daitezten. Eremitan, beste proiektu pilotu osagarri batzuk ere martxan daude, hala nola AICP.com proiektua, Europako funtsekin finantzatua eta LARESek eta Pilar Fundazioak gidatua. Horiei esker, lortutako emaitzekin, hartu beharreko neurri buruzko erabakiak hartu ahal izanen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-243PES-00215. Galdera, Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-23/PES-00215 informazio eskaera egin du, Erriberan Airearen Kalitatea Hobetzeko Planari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer jarduketa egin ditu Gobernuak epai hori betetzeko, zeinak Gobernua behartzen baitzuen “lehenbailehen” –eta betiere epaia eman zenetik urte bateko epean– Erriberako ozono-maila hobetzeko airearen kalitate-plan nahitaezkoak egitera?

Nafarroako Foru Komunitateak arku mediterraneoako gainerako eskualdeek jasan duten ozono problematika antzekoa du eta, zehazki, mugakide diren beste eskualde batzuek (Aragoi, Errioxa eta Euskadiko hegoaldea) jasan dutenaren oso antzekoa. Historikoki, Erribera izan da ozono balio handienak izan dituen eremua. Eremu horretan, eskualde eta eskualdeez gaindiko dinamika atmosferikoek, komunitatearen orografia bereziarekin batera, kutsatzaile horren kontzentrazioa sortzen dute Ebro ibaiaren ardatzean eta, bereziki, hego-ekialdeko eremuetan, Tuteran inguruan eta hurbileko eremuetan.

2016. urtearen aurreko urteetan mugako balio jakin batzuk gainditu zirela egia bada ere, landarediaren eta pertsonen osasunaren babesari dagokionez, azken urteotan balio horiek hobetu egin dira. Hala, Airearen Kalitatea Zaintzeko Sareko estazio bakar batean ere ez da gainditu osasuna babesteko legez ezarritako balio objektiboa 2016az geroztik. Halaber, 2019tik ez da gainditu landaredia babesteko legez ezarritako balio objektiboa, eta, beraz, Nafarroan 2020tik 2023ra arte bete dira legez ezarritako balioak.

Ozonoaren balio objektiboak bete diren arren, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2021eko abenduaren 23ko 410/2021 Epaia bidez, baietsi egin zen Landazuria-Erriberako Ekologistak Martxan elkarteak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Erriberako Ekologistak Martxan elkarteak 2019ko maiatzaren 24an Nafarroako Gobernuari egindako eskera administrazioaren isiltasunez ezestearen aurkakoa. Eskaera hori Erriberako Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana premiaz onesteko egin zen, ozonoari dagokionez, eta horren ondorioz, adierazi zen nahitaezkoa zela Nafarroako Gobernuak Nafarroako Erriberako ozono maila hobetzeko airearen kalitate planak egin eta onestea, ahalik eta lasterren, eta, nolana-hi ere, epai honen datatik kontatzen hasita urte zibila amaitu baino lehen. Horrek guztiak ez du Ozonoaren Plan Nazionala egitea galaraziko. Plan horren buru da Trantsizio Energetikorako eta Erroka Demografikorako Ministerioa eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bertan parte hartzen du.

Hori dela eta, Planaren zirriborro bat idatzi zen eta jendaurrera zabaldu zen Nafarroako Gobernuko Partaidetzarako Atarian 2022ko apirilaren 1etik 30era. Hala, kontsultak egin zaizkie identifikatutako neurriak aplikatzeko ardura duten Nafarroako Gobernuko hainbat erakunde eta departamenturi, izan ere, neurri horietako gehienak ez baitira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eskumenekoak, eta, nolana-hi ere, Departamentu horrek helburu diren balioak bete-tzearen urteko ebaluazioa eginen du, Airearen Kalitatea Zaintzeko Sarearen bitartez.

Parte hartze publikoko epe horretan alegazio bakarra jaso zen Nafarroako Ekologistak Martxan erakundearen aldetik. Alegazio horretan ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko eskatu zuten.

Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana araudiak ezarritako airearen kalitatearen helburuak betetzera bideratutako tresna da, bai eta kutsadura atmosferikoaren inpaktu negatiboak txikiagotzera eta saihestera bideratutako tresna ere. Plan horren helburua eta xedea ez datoz bat ingurumen ebaluazio estrategikoaren aplikazio esparruarekin, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikuluan jasotakoaren arabera. Planak gaur egun indarrean dauden lege- eta plangintza-tresna guztiak identifikatzen ditu, ozono troposferikoaren sorkun-

tza eragiten duten aitzindarien emisioak pixkanaka murrizteko neurriak ezarri dituztenak, aurreko urteetako atmosferarako isurketen inbentarioetan hala egiaztatzen baita.

Identifikatu diren neurri berriek eragin gehigarria dute dagoeneko indarrean dauden gainean, baina ez dira lege-arau berriztat, aldaketatzat edota plan berriztat hartzen, eta ez dute inola ere ezartzen ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua, Biodibertsitatearen Zerbitzuak horrela adierazi baitzuen. Edonola ere, planaren izapidetzea gardenagoa izan dadin, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak onartu zuen Nafarroako Ekologistak Martxan elkarteak egindako ekarpena eta plana ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri zuen. Prozedura horri ekiteko Planaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa Biodibertsitatearen Zerbitzura bidali zituen 2022ko abenduaren 19an.

Prozedura izapidetu ondoren, 2023ko ekainaren 17tik abuztuaren 22ra bitartean parte hartzeko fase publikoa egin zen, eta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko azaroaren 22ko 1015E/2023 Ebazpenaren bidez, dagokion aldeko ingurumen adierazpen estrategikoa egin zen.

2. Zehazki, Gobernuak noiz onetsiko du Airearen Kalitatea Hobetzeko Plana, kontuan hartuta joan den abuztuan amaitu zela Planaren ingurumen-azterketa estrategikoari ekarpenak egiteko epea?

Aldeko ingurumen adierazpen estrategikoa lortu ondoren, 2024ko urtearen hasieran Ozonoak Nafarroan kutsatutako airearen kalitatea hobetzeko plana onestea ekarriko duen tramitazioa amaitzen ari da.

3. Epaia eman zenetik, airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/201 Errege Dekretuan landa-estazioetan makroezarpen-irizpi-deak betetzen direla bermatzen duten eta Funes-

koarekin alderatuta desberdinak diren zenbat neurketa-estazio ezarri dira? Erriberako zein herritan daude?

Erriberako ozono mailen kontrola legalki ondo babestuta dago, airearen kalitatea kontrolatzeko dauden hiru estazio finkoen bitartez:

– Landa ingurunean estazio bat, Funesen.

– Landa ingurunean beste estazio bat, Tuteran.

– Hiri-hondoko estazio bat, Tuteran. Oharra: hiri-hondoko kokapenak hirigunean kokatutako lekuak dira eta beren mailak hiriko biztanleriak oro har duen esposizioaren adierazgarri dira.

Horregatik guztiagatik, ez da neurketa estazio berririk ezarri aipatutako epaia eman zenetik.

Hala ere, ez da baztertzeko kontrol hori inguruko beste eremu batzuetara hedatzea (adibidez, Errege Bardeak, Buñuel etab.) ozono kontzentrazioak nola banatzen diren eta alde aurretik modelizatutako balioekin bat datozen egiaztatzeko. Horretarako, honako hau planteatzen da: epe labur-ertainean intereseko kokalekuak hautatzea eta udan ozonoa neurtzeko kanpainak egitea, estazio mugikor eta/edo ekipo eramangarri bidez, hautatutako kokalekuetan erregistratutako ozono balioak ezartzeko.

4. Estazio berri horiek erabilera eta kontrol publikokoak dira, ala entitate pribatuek kudeatzen dituzte?

Aurreko erantzunean adierazi denez, ez da neurketa estazio berririk ezarri.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00216. Galdera, esnearen produkzio-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak esnearen produkzio-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-23/PES-00216 galdera egin du, esnearen ekoizpen-kostua kalkulatzeko aplikazio informatiko bat ezartzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Ezagutzen al du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Kataluniako Generalitateko Ekintza Klimatiko, Elikadura eta Landa-agendako Departamentuak esnearen ekoizpen-kostua kalkulatzeko ezarritako tresna?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Nafarroako Elikadura Katearen Behatokia garatzen ari da, eta horretarako, enkargu bat formalizatu da INTIA enpresa publikoarekin.

Esparru horretan gauzatu diren jardueretako bat izan da beste autonomia-erkidego batzuetan Katearen Legearen ezarpen eta kontrolarekin lotuta egin diren jarduketak aztertzea. Ekoizpen-kostuak kalkulatzeko tresnen identifikazioa lan honetan sartuta dago, eta horien artean Kataluniako Generalitateak garatutako aplikazioa dago; hortaz, baieztatzen dizut Departamentuak ezagutzen duela galderak xede duen aplikazioa.

2.- Aurreikusi al du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak tresna informatikoren bat ezartzea Nafarroako abeltzaintza-sektorean esnearen ekoizpen-kostua kalkulatzeko?

Katearen Behatokian sartzea aurreikusten den elementuetako bat hainbat sektore eta produkturen produkzio-kostuak kalkulatzeko tresna bat da, eta, besteak beste, haragitarako zein esnetarako

ardi- eta behi-ekoizpenaren kostuak kalkulatzeko. Lehen fasean, nekazaritzako produktuen ekoizpen-kostuak kalkulatzeko tresnak garatu dira, eta 2024an, aipatutako abeltzaintzako ekoizpenetarako tresna garatuko da.

3.- Gaur egun, zer mekanismo erabiltzen ditu Nafarroako Gobernuak Elikadura Kateari buruzko 16/2021 Legea betetzen dela kontrolatzeko eta, bereziki, Nafarroako abeltzaintzako instalazioetan ekoiztutako esnea ekoizpen-kostuaren azpitik saltzeko?

Elikadura-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko 12/2013 Legean (16/2021 Legeak aldatua) ezarritako kontratuei buruzko betebeharez gain, esnegintzaren sektorerako araudi espezifiko bat ezarri behar da: 95/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, esnegintzaren sektoreko kontratazio-baldintzak ezartzen dituen eta ekoizleen antolakundeen eta sektoreko lanbide arteko antolakundeen onarpena arautzen duena, bai eta sektore horretan aplikatzen diren zenbait errege-dekretu aldatzen dituen ere.

Berariazko araudi horrek kontratu bidezko harremanak ezartzen ditu esne gordinaren horniketako merkataritza transakzioak egiten dituzten operadore guztientzat, transformadoreen arteko esne gordinaren hornidura puntaletarako izan ezik, eta betebehaz berezi batzuk ezartzen dizkie esnegintzaren sektoreko operadoreei: Esne gordina erosteko kontratuak, 12/2013 Legearen arabera elikadura kontratuen erregistroan erregistratzeaz gain, esnearen sektoreko informazio sistema bateratuaren (INFOLAC) datu basean ere erregistratu behar dira, apirilaren 24ko 319/2015 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Besteak beste, produktua ekoizle batekin kontratatu duen esne gordinaren lehenengo erosleak ahalik lasterren jakinaraziko ditu kontratuaren datuak, eta inoiz ez zazpi egun baliodun baino gehiago kontratua indarrean jartzeaz geroztik. Jakinarazpen horiek euskarri informatikoan eginen dira, INFOLAC datu basean.

Lehenengo erosleek honako datu hauek eman behar dituzte, besteak beste:

- Aldeen identifikazioa, ekoizlearen ustiapen kodea barne.
- Kontratuaren xedea.

– Horniduragatik ordainduko den prezioa; finkoa, aldakorra edo mistoa izan daiteke.

– Hornituko den bolumena, litrotan.

Gainera, lehenengo erosleak behartuta daude bereizita adieraztera prezio desberdinetan ordaindutako esne bolumenak, bai eta kalitate bereiziko (ekoizpen ekologikoa, ekoizpen integratua, DOP, IGP edo ETG) eta ekoizpen horietarako ez diren esnekiak ekoiztera bideratutakoak ere, bakoitza dagokion prezioekin lotuta, eta, aldi berean, finkoak, aldakorrak edo mistoak diren adierazita.

INFOLACen existentziak eta erosketa-bolumenak eta ordaindutako prezioak hilerok aitortzeko betebeharrak aukera ematen dute ordaindutako prezioen aldizkako azterketak egiteko eta INTIA enpresa publikoak egiten dituen batez besteko ekoizpen-kostuekin kontrastatzeko. Prozedura hori ezartzen da esnetarako behien eta esnetarako ardien sektorean katearen legea betetzen dela

kontrolatzeko, ordaindutako prezioei eta ekoizpen-kostuei dagokienez.

4.- Zenbat ikuskapen egin ditu Departamentuak esnearen salmenta kontrolatzeko, betiere prezioa ekoizpen-kostua baino txikiagoa izan gabe?

Lehen adierazi bezala, esnegintzaren sektoreko prezioak/kostuak kontrolatzeko prozedura ez da ikuskapenetan oinarritzen, baizik eta esne-entregan eta ordaintzen analisiari.

2023ko urtarriletik azarora bitartean 124 ekoizleri ordaindutako zenbatekoak eta entregak aztertu dira. Ekoizpen-kostuen azpiko ordaintzei dagokienez, ez da arrisku-egoerarik identifikatu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00217. Galdera, Tafallako suhiltzaile-etxe berriaren lanen lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Tafallako suhiltzaile-etxe berriaren lanen lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00217), honako honi buruzkoa, hain zuzen:

1.- Zergatik ez dira oraindik lizitatu Tafallako suhiltzaileen parke berriaren obrak?

2.- Ogasun Departamentuak ba al du erantzukizunik lizitazio horren atzerapenean, obrak finantzatzeko behar den aurrekontu-gaikuntzaren gaineko arazoak direla-eta?

3.- Ba al da obrak lizitatu ahal izateko behar adinako aurrekontu-partidarik?

4.- Noizko aurreikusten duzue obren lizitazioa eta obren hasiera?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak abenduaren 13ko gobernuaren bilkuran onetsi zuen 2024 eta 2025. urteetarako Tafallako suhiltzaileen parke berriaren obretarako kontratazioa, zeinek 5,9 milioiko inbertsioa izanen baitute. Aurrekoa dela-eta, data horretatik aurrera obrak lizitatzeko espedientea izapidetzen jarraitzeari ekiten ahal zaio.

Aipatutako gobernu akordioan jasotzen denez, urte anitzeko gastua baimendu da 5.916.177,22 milioi euroko zenbatekoan (BEZa barne); 4 milioi euro bideratuko dira "Suhiltzaile parketako obrak" deritzon partidara eta 1,91 milioi euroko beste gastu bat 2025. urterako.

Behin obretako eraikuntza baimendu ondoren, beroriek lizitatzea aurreikusten da 2024 urteko urtarrilean: horrela, parkea eraikitzen hasten ahal da 2024 urteko udaberrian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 27an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

11-23/PES-00218. Galdera, 4/2022 Foru Legean jasota datozen tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak 4/2022 Foru Legean jasota datozen tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 4/2022 Foru Legean aurreikusitako tokiko parte-hartzeko sorkuntza berriztagarriko proiektuei buruz (11-23/PES-00218). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak ematen duen informazioa:

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua honako hau ezartzen du:

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua honako hau ezartzen du:

“2. Foru lege honen ondorioetarako, sorkuntza berriztagarriko proiektuak, tokiko partaidetza dutenak, izanen dira egiaztatzen dutenak zalan-tzarik gabe parte hartzeko aukera eman dietela instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerririk mugakideetako pertsona fisikoei edo juridikoei, publiko edo pribatuei, proiektuaren jabetzaren % 51n gutxienez eta gutxienez % 20ko partaidetza eraginkorra lortu beharko dute.

3. Proiektua merkataritza sozietate baten bidez bideratzen bada, proiektuaren jabetzaren % 40 bideratze-sozietatearen % 51 dela ulertuko da. Proiektu bakar bat sozietate batean baino gehiagotan bideratzen bada, tokiko inbertsioa irekitzen den zatia ez da inoiz izanen proiektua osatzen duten bideratze-sozietateen akzio edo partaidetza guztien balio nominal osoaren % 51 baino txikiagoa.

4. Tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuak hartuko dira, orobat, herritarren energia-komunitatearen edo energia berriztagarrien komunitatearen izaera duten erakundeek sustatutakoak, ordenamendu juridikoarekin bat.

5. Artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako tokiko partaidetzarako eskaintza nahitaezkoa izanen da sorkuntza berriztagarriko proiektua lurzoru publikoan dagoenean. Interesa duten pertsona fisiko edo juridikoen kopurua ez bada % 40ra iristen, eskaintza zabalduko da udalerririk mugakideetako pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuentzat. Horrela ere ez bada iristen % 40ra, eskaintza egingen zaie Nafarroako pertsona fisiko edo juridiko publiko eta pribatuei”.

Martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea indarrean sartu zen 2022ko apirilaren 2an; hortaz, aipatutako 36. artikulua data horren osteko sorkuntza berriztagarriko proiektuei baino ez die eragiten. Legearen eraginpeko proiektuen zerrenda jaso da erantsi den Excelean.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak ulertzen du tokiko partaidetzako eskaintzaren justifikazioa ezin dela exijitu administrazio baimenaren eskaera egiteko unean honako arrazoi hauengatik:

Gogorarazi behar da sorkuntza berriztagarriko proiektuak baimentzeko prozedurak prozesu konplexuak direla. Energia, Enpresa I+G+b eta Ekin-tzaitzako Zuzendaritza Nagusiak administrazio baimena eman aurretik, proiektuak jendaurrean jarri behar dira, eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ebaluatu behar dituzte ere bai.

Aurrekoaren ondorio da izapidetu artean proiektuak aldatu, doitu edota murriztu egiten direla. Kasu askotan sustatzaileak ez du jakiten azkenean zein diren ukitutako partzelak proiektuak ingurumen inpaktuaren adierazpena eta lurzoru urbanizazion jarraierak egiteko baimena eskuratu arte. Sustatzaile batek hasiera batean proiektu bat planteatzen ahal du lurzoru publikoan nahiz pribatuan eragina duena (kasu horretan aplikatuzkoa litzateke Foru Legearen 36. artikulua), baina gerta liteke azkenean lurzoru pribatuan eragina duen proiektuaren zatia soilik baimentzea (eta kasu horretan ez litzateke aplikatu beharko aipatutako artikulua).

Aurrekoa azalduta, eta Adolfo Araiz Flamari-que jaunak planteatutako galdera zehatzei erantzuteko, adierazi behar da ezen, erantsi den Excel orrian ikusten ahal denez, 2022ko apirilaren 2az geroztik aurkeztutako proiektu guztietatik bitan baino ez dela baimena eman. Zehazki, jabetza partikularreko lurzoruan kokatutako bi proiektu fotovoltaikotan eman da baimena; hortaz, ez zaie aplikatzekoa martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua.

Izapidetzen ari diren gainerako proiektuen kasuan, jakinarazi behar da egunera arte sustatzaile batek ere ez duela Energia, Enpresa I+G+b eta Ekintzailetzako Zuzendaritza Nagusian justifikatu bere proiektuan parte hartzeko aukera modu frogagarrian eskaini izana. Jadanik adierazi denez, proiektuok izapidetzen ari dira eta oraindik

ezezaguna da zein izanen den behin betiko baimendutako kokapena. Justifikazio hori aurretiko administrazio baimena edota eraikitzekoa eskuratu baino lehen aurkeztu beharko da, edota geroago, jadanik azaldu denez.

Edonola ere, modu informalean jadanik jakin da sustatzaile batzuk jadanik ari direla martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua betetzeko moduan lan egiten, aplikatzekoa izaten ahal zaielakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

2022/04/02TIK AURKEZTUTAKO ENERGIA BERRITZAGARRI EOLIOA EKOIZTEKO PROIEKTUAK (2023/12/26AN EGUNERATUA)									
SUSTATZALEA	INSTALAZIOAREN IZENA	PROIEKTUAREN MW ELEKTRIKOKA	EBAKUAZIO GUNEA	XOKALEKUA	ESKAERAREN DATA	ESPEDIENTEAREN EGOERA	BAIMENAREN DATA (NAO)		
NORDEX	PE HIBRIDO RIBAFORADA	6,2	RIBAFORADA 13,2 kV	RIBAFORADA	2023/07/21	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/08/10ean ENPRESAK ERANTZUN EGIN DU LURRALDEAREN ANTOLAMENDUKO ERREKERIMENDUA AZTERTZEN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (1)	PE AS DE GUIA 3	4,5	ZANGOZA 66 kV	LEATXE	2023/07/17	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/09/28an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (1)	PE BALLESTRINQUE 3	4,5	ZANGOZA 66 kV	OIBAR	2023/07/17	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/09/28an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (1)	PE BALLENGER 3	4,5	ZANGOZA 66 kV	OIBAR	2023/07/17	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/09/28an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (1)	PE CARRABELA 3	4,5	ZANGOZA 66 kV	OIBAR	2023/07/17	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/09/28an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (1)	PE AS DE GUIA 4	4,99	CRISTÓBAL T1 66 kV	OIABAR	2023/07/17	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/09/28an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (2)	PE BALLESTRINQUE 4	4,99	CRISTÓBAL T1 66 kV	OIABAR	2023/09/05	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (2)	PE BALLINGER 4	4,99	CRISTÓBAL T1 66 kV	OIABAR	2023/09/05	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (2)	PE CARRABELA 4	4,99	CRISTÓBAL T1 66 kV	OIABAR	2023/09/05	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (2)	PE CARRACA 4	4,99	CRISTÓBAL T1 66 kV	OIABAR	2023/09/05	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE AS DE GUIA 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE BALLESTRINQUE 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE BALLINGER 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE CARRABELA 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE CARRACA 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE MARGARITA 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/17	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE NAO 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (3)	PE VUELTA DE ESCOTA 6	4,99	ORKOÏEN 66 kV	GOÑI, GESALATZ, JAITZ	2023/11/16	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (4)	PE MARES DEL MUNDO	4,99	IAFALLA 66 kV	SAN MARTIN UNX	2023/08/11	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (4)	PE SEXTANTE	4,99	IAFALLA 66 kV	SAN MARTIN UNX	2023/08/11	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (4)	PE SINGLADURA	4,99	IAFALLA 66 kV	SAN MARTIN UNX	2023/08/11	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (4)	PE AZAFEA	4,99	IAFALLA 66 kV	SAN MARTIN UNX	2023/08/11	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (4)	PE LA CASA DEL PALO	4,99	IAFALLA 66 kV	SAN MARTIN UNX	2023/11/22	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (4)	PE LAS MARISMAS	4,99	IAFALLA 66 kV	SAN MARTIN UNX	2023/11/22	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (5)	PE CARRABELA 10	4,99	VENTA/JUDAS T2 66 kV	LEOTZ	2023/11/10	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (5)	PE MARGARITA 10	4,99	VENTA/JUDAS T2 66 kV	LEOTZ	2023/11/10	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (5)	PE NAO 10	4,99	VENTA/JUDAS T2 66 kV	LEOTZ	2023/11/10	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (6)	PE AS DE GUIA 10	4,99	VENTA/JUDAS T1 66 kV	ELO	2023/08/30	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/11/23an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (6)	PE BALLESTRINQUE 10	4,99	VENTA/JUDAS T2 66 kV	ELO	2023/08/30	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/11/23an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (6)	PE BALLINGER 10	4,99	VENTA/JUDAS T2 66 kV	ELO	2023/08/30	JENDURREAN JARRIA, NA On IRAGARRITA 2023/11/23an	EMATEKE		
GRUPO ARENA (7)	PE AS DE GUIA 11	4,99	IRURTZUN T2 66 kV	SASABURUA, IMOTZ	2023/12/01	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (7)	PE BALLINGER 11	4,99	IRURTZUN T2 66 kV	SASABURUA, IMOTZ	2023/12/01	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (7)	PE CARRABELA 11	4,99	IRURTZUN T2 66 kV	SASABURUA, IMOTZ	2023/12/01	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		
GRUPO ARENA (7)	PE CARRACA 11	4,99	IRURTZUN T2 66 kV	SASABURUA, IMOTZ	2023/12/01	JENDURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE		

ENERGIA FOTOVOLTAIKO BERRIZAGARRIA EKOLITZKO PROIEKTUAK (2023/1928AN EGUNERATUA)							
SUSTATZALEA	INSTALAZIAREN IZENA	PROIEKTUAREN MW ELEKTRIKOA	EBAKUAZIO GUNEA	KOKALEKUA	ESKARAREN DATA	ESPEZIENTIAREN EGOKERA	BAIMENAREN DATA (MAD)
FOTOVOLTAICA BERLIN	FV CANTERASOLAR	5	MILAGRO BTA 13,2 KV	FUNES ETA MILAGRO	2022/06/02	ALDEKO IRAKONTRAKO LUBB SUSTATZALEAK GORAJOTZEKO ERREKURTISOA JARRI DU	EMATEKE
FOTOVOLTAICA BERLIN	FV CABEZO ROYO	5	LABRADAS BTA 13,2 KV	MURCHANTE ETA TUTERA	2022/08/02	ALDEKO IRA LUBB EMATEKE	EMATEKE
HELOSOLAR	FV VIANA SOLAR	5	VIANA BTA 13,2 KV	VIANA	2022/09/26	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/09/28ean	EMATEKE
HELOSOLAR	FV MARCOAIN	4,25	IMARONAIN BTA 13,2 KV	NOAIN	2022/06/07	LUBB UKATUTA BAIMENA UKATZEKO ZAIN	EMATEKE
SOLARRACK	FV VILLAFRANCA SOL	2	ALESSES BTA 13,2 KV	ALESSES	2022/10/07	BAIMENDUTA	2023/11/16
AREA SOSTENIBEL	FV ASO P2	1,8	BERRUEZA 13,2 KV	LOS ARCOS	2023ko abuztuaren 17an	BAIMENDUTA	2023/06/19
ENERGIAS RENOVABLES ARNETUM	FV RADA III	2	ARRADA 13,2 KV	MURILLO EL CUENDE, ARRADA	2023/02/09	LUBB UKATUTA BAIMENA UKATZEKO ZAIN	EMATEKE
HELOSOLAR	FV EL PRADO	4	BURRIN BTA 13,2 KV	GALAR	2022/04/11	KONTRAKO IRAKONTRAKO LUBB	EMATEKE
SOLARRACK	FV TAFALLA AITAIR	4,89	TAFALLA 11 BTA	TAFALLA	2022/09/09	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/10/10ean	EMATEKE
SOLARRACK	FV TAFALLA SOL	4,89	TAFALLA 11 BTA	TAFALLA	2022/09/09	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/10/10ean	EMATEKE
SOLARRACK	FV TAFALLA SIRGAS	4,89	TAFALLA 11 BTA	TAFALLA	2022/09/09	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/10/10ean	EMATEKE
SOLARRACK	FV TAFALLA POLARIS	2,195	TAFALLA 11 BTA	TAFALLA	2022/09/09	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/10/10ean	EMATEKE
SOLARRACK	FV TAFALLA POLUX	4,89	TAFALLA 11 BTA	TAFALLA	2022/09/09	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/10/10ean	EMATEKE
MADE FOTOVOLTAICA	FV VIANA SOL	5,85	VIANA BTA 13,2 KV	VIANA	2022/10/03	ALDAKETA POSIBILEA EBAKUAZIOKO AZPIEGITURETAN	EMATEKE
RENOVABLES PILUE	FV ASPRASOL	0,25	CASCANTE BTA 13,2 KV	MURCHANTE	2022/05/19	ALDEKO IRA LUBB EMATEKE	EMATEKE
RIOS RENOVABLES	FV LA PLANILLA	4,28	TAFALLA 66 KV	ERRERRERI ETA TAFALLA	2023/04/21	IRIA ETA LUBB EMATEKE	EMATEKE
RIOS RENOVABLES	FV LOS MULARRES	4,02	TAFALLA 66 KV	ERRERRERI ETA TAFALLA	2023/04/21	IRIA ETA LUBB EMATEKE	EMATEKE
RIOS RENOVABLES	FV LA CAVA	4,95	TAFALLA 66 KV	ERRERRERI ETA TAFALLA	2023/04/21	IRIA ETA LUBB EMATEKE	EMATEKE
RIOS RENOVABLES	FV BARETON	4,95	TAFALLA 66 KV	ERRERRERI ETA TAFALLA	2023/05/05	IRIA ETA LUBB EMATEKE	EMATEKE
BERMOND RENOVABLES	FV CRISTOBA	4,995	CRISTOBAL T2 13 KV	EZKABARTE	2023/05/12	BAIMENA UKATUTA 2023/12/22AN, KONTRAKO TXOSTENENGATIK	ARGITARATZEKE
FRENIA NEW ENERGY VENTURE ESPAÑA	FV CRISTOBA F2	4,995	CRISTOBAL T1 13 KV	EZKABARTE	2023/05/15	BAIMENA UKATUTA 2023/12/22AN, KONTRAKO TXOSTENENGATIK	ARGITARATZEKE
BERMOND RENOVABLES	FV ZIZUR MAYOR	4,995	ZIZUR NAGUSIA T2 13 KV	ZIZUR NAGUSIA	2023/05/23	BAIMENA UKATUTA 2023/12/22AN, KONTRAKO TXOSTENENGATIK	ARGITARATZEKE
FRENEY NEW ENERGY VENTURE ESPAÑA	FV ZIZUR	4,995	ZIZUR NAGUSIA T2 13 KV	ZIZUR NAGUSIA	2023/06/01	BAIMENA UKATUTA 2023/12/22AN, KONTRAKO TXOSTENENGATIK	ARGITARATZEKE
BAHIA DE PLATA	FV SADAR	4,99	SADAR T2 13 KV	GALAR, ZIZUR ETA IRUNA	2023/07/03	SUSTATZALEA KOKAPEN BERRIBAT AZTERTZEN ARI DA	EMATEKE
BAHIA DE PLATA	FV ZIZURWAY	4,99	ZIZUR NAGUSIA T2 13 KV	ZIZUR, OITZA, BARAÑAIN ETA ZIZUR NAGUSIA	2023/07/03	SUSTATZALEA KOKAPEN BERRIBAT AZTERTZEN ARI DA	EMATEKE
JOLUGA ENERGY	FV HIBRIDACION JOLUGAR SOLAR	9,25	ZANGOZA 66 KV	ESLABA	2023/03/20	ALDEKO IRA LUBB EMATEKE	EMATEKE
ACCIONA	FV VALLE HV2 NIMARRA	25	GUNERIK EZ	ZANGOZA	2023/09/19	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/11/09ean.	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV LA SANTA MARIA 3	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/03/14	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/04/27an, SUSTATZALEAK PROIEKTUA BIRKONTRATU DU	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV LA PINTA 8	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/03/14	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/04/27an, SUSTATZALEA KOKAPEN BERRIBAT AZTERTZEN ARI DA	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV LA SANTA MARIA 2	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/03/14	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/04/27an, SUSTATZALEA KOKAPEN BERRIBAT AZTERTZEN ARI DA	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV LA PINTA 7	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/03/14	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/04/27an, SUSTATZALEA KOKAPEN BERRIBAT AZTERTZEN ARI DA	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV LA NINA 7	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/03/14	JENDAUURREAN JARRIA, NAOH IRAGARRITIA 2023/04/27an, SUSTATZALEA KOKAPEN BERRIBAT AZTERTZEN ARI DA	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV CASO DE BUENA ESPERANZA	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/06/16	JENDAUURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (4)	FV EL QUINTO CENTENARIO 6	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA ETA TAFALLA	2023/06/16	JENDAUURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (4)	FV BITACORA	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA	2023/06/16	JENDAUURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (4)	FV MAR MEDITERRANEO	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA	2023/06/16	JENDAUURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE

GRUPO ARENA (4)	FV LOS CINCO OCEANOS	4,99	TAFALLA 66 KV	MIRANDAARGA	2023/08/16	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV CAMINO DE INDIAS 147	4,99	CORDOVILLA 66 KV	NOAIN	2023/08/15	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV EL DESCURRIMIENTO 121	4,99	CORDOVILLA 66 KV	NOAIN	2023/08/15	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV EL CANO 6	4,99	CORDOVILLA 66 KV	NOAIN	2023/08/15	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (5)	FV LAS TRES CARABELAS 5	4,99	CORDOVILLA 66 KV	NOAIN	2023/08/15	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (2)	FV EL QUINTO CENTENARIO 3	4,99	ORKOEN 66 KV	OLTZA ZENDEA	2023/08/01	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (2)	FV EL CANO 4	4,99	ORKOEN 66 KV	OLTZA ZENDEA	2023/08/01	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (2)	FV EL DESCURRIMIENTO 119	4,99	ORKOEN 66 KV	OLTZA ZENDEA	2023/08/01	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (2)	FV LA NIÑA 8	4,99	ORKOEN 66 KV	OLTZA ZENDEA	2023/08/01	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (1)	FV AZAREA 4	4,99	LIZARRA T. 66 KV	OTEITZA	2023/08/07	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (1)	FV BITACORA 6	4,99	LIZARRA T. 66 KV	OTEITZA	2023/08/07	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (1)	FV CABO BUENA ESPERANZA 5	4,99	LIZARRA T. 66 KV	OTEITZA	2023/08/07	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (1)	FV ABSTOLABIO 3	4,99	LIZARRA T. 66 KV	OTEITZA	2023/08/07	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (1)	FV CABO HORNO 6 4	4,99	LIZARRA T. 66 KV	OTEITZA	2023/08/07	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
GRUPO ARENA (1)	FV ALETA 19	4,99	LIZARRA T. 66 KV	OTEITZA	2023/10/17	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE
VARIOS PARTICULARES	FV LA FALCONERA II	1,75	EMATEKE	ERRIBERRI	2023/10/17	ALDEKO LUBUB ALDEKO IAA SARTZEKO ETA KONEKTATZEKO BAIMENAREN ZAIN	EMATEKE
RIOS RENOVABLES	FV LA PEDRETA	1	CARGAR-ANDOSILLA 13,2 KV	ANDOSILLA, SAN ADRIAN	2023/10/06	JENDAIURREAN JARTZEKO ZAIN	EMATEKE

IA = INGURUMEN INPAKTUAREN ADIERAZPENA
 LUBUB = LUBURU URRANZAZ NEAN JARDUERA BAIMENGARRIAK
 AAB = AURREITAZKO ADMINISTRATZIO BAIMENA

11-23/PES-00219. Galdera, tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuetarako lursailen poltsa bat sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuetarako lursailen poltsa bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-23/PES-00219 informazio eskaera egin du, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren 4/2022 Foru Legeko 36.7 artikuluan aurreikusten den lursailen poltsari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

36.7 artikulua haxe dio: "7. Nafarroako Gobernuak bere kontura edo toki erakundeekin elkarlanean lursailen poltsa bat sortuko du eta lursailen jabeek eskuragarri jartzen ahalko dituzte artikulua honetan araututako energia berriztagarrien proiektuak garatzeko. Foru lege honen erregelamenduzko garapenak horren irizpideak arautuko ditu, bai eta hori osatu eta bertan sartzeko betekizunak ere".

Helarazitako galderei erantzuna eman aurretik, zerbait gogoeta egin behar dira:

1) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 7ko 291E/2023 Foru Agindu bidez hasiera ematen zaio Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 4/2022 Foru Legea aldatzeko prozedurari, bat egiteko Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen Lankidetzako Batzordearen 2022ko abenduaren 28ko akordioarekin, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeari lotuta, zeina 2023ko urtarrilaren 23ko 15. NAO on argitaratu baitzen. Izapide horren beraren baitan aurreikusita dago gaur egun legea behar bezala aplikatzea eragozten duten alderdi zehatzak konpontzea eta zuzentzea.

2) Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak duen idazketan artikulua batzuetan erregelamendu garapen zehatzak aipatzen ditu, hala nola 27. artikulua, zeina idazketako fasean baitago.

3) Beste kasu batzuetan, arauak legearen erregelamendu bidezko garapena aipatzen du orokorrean, helarazitako galderetan hizpide den 36.7 artikuluan jasotzen denez. Erregelamendu bidezko garapen orokor hori ez da aurreikusten egitea 1. puntuan aipatutako 4/2022 Foru Legearen aldaketa onetsi artean.

4) Gogorazi behar da 4/2022 Foru Legeak zeharkako izaera duela, eta berorren garapenak eta inplementazioak Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiek parte hartzea eta inplikazioa eskatzen duela, bakoitza beren eskumenen eta eginkizunen esparruan.

5) 4/2022 Foru Legean jasota dago klima aldaketaren eta energia trantsizioaren departamentu-arteko batzorde bat sortzea, eta horren eginkizunen artean egotea Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta bere erakunde instrumentalaren askotariko departamentuen jarduketara koordinatzea klima aldaketaren aurkako eta energia trantsizioaren aldeko ekintzan, bai eta Nafarroako plan sektorialen, neurrien eta xedeen jarraipena eta balorazioa egitea ere foru lege horretan klima aldaketaren aurka eta energia trantsizioaren esparruan ezarritako helburuak betetzeko alderdi esanguratsuei dagokien orotan. Batzorde horrek 2023ko azaroaren 16an egin zuen lehenengo bilera.

6) Legearen garapena jarraitzeko tresna informatiko bat prestatzen ari da, eta horri buruzko lehenengo aurkezpena egin zen arazoaren 16ko Departamentu-arteko Batzordean. Tresna horrek ahalbidetu egingen du gobernu mailan jarraipena egitea, hots, lege horren esparruan Nafarroako Gobernuko Departamentuek hartutako helburuen eta konpromisoen jarraipena.

Gogoeta horiek jakinarazita, izapidetzera onartutako galderei erantzunen zaie.

1. Noizko aurreikusten du Gobernuak 4/2022 Foru Legearen 36.7 artikuluan ezarritako lursailen poltsa sortzea?

2024an zehar gai horren inguruan lan egiten hastea espero da, izapidetzen ari den 4/2022

Foru Legearen aldaketaren emaitzaren arabera. Lan hori egiteko beharrezkoa izanen da lankidetzaz estuan aritzea Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko Energia, Enpresa I+G+b eta Ekintzaitzako Zuzendaritza Nagusiarekin. Izan ere, klima aldaketari eta energia trantsizioari buruzko Foru Legearen III. Tituluko 1. kapituluko artikuluko batean jasota dago, energia berriztagarriak sustatzeari buruzkoa, eta Zuzendaritza horren berariazko eskumena da.

2. Noiz onetsiko du Gobernuak lursailen poltsa hori osatzeko eta bertara sartzeko irizpideak eta

baldintzak arautuko dituen erregelamendu bidezko garapena?

Aurretik adierazitakoaren arabera, ez dago aurreikusita legearen erregelamendu bidezko garapenik egitea, oro har, izapidetzen ari den aldaketa onetsi arte.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00220. Galdera, NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañeru andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2023ko abenduaren 11ko 5579 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoentzako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordeari buruz (11-23/PES-220). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer egunetan eratu zen NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea? Nork osatzen du batzorde hori eta zenbat bilera egin dira gaur arte?

Gaiaren konplexutasun juridikoa dela-eta, Nafarroako Gobernuak NEKParen bidez, txosten tekniko eta juridiko bat egin zuen aurtengo maiatzean, bi helbururekin: sektore publiko enpresariaren jasangarritasuna lantzea eta Langileen Legezko Ordezkaritzarekin hitz egiteko esparrurik egokiena zehaztea, besteak beste sozietate publikoetarako hitzarmen kolektibo bakarra sinatzea eta negoziazio mahaia eratzea bideragarria den aztertzeke.

Txosten horrek zenbait muga, zalantza eta gai juridiko planteatzen zituen, batez ere honako alderdi hauei buruzkoak:

– Negoziazio mahaiaren legezkotasuna

– Hitzarmenaren aplikagarritasuna Langileen Legezko Ordezkaritza ez duten sozietateetan

– Hitzarmenaren aplikagarritasuna sozietate publikoetan, Gobernu Akordio bidez ezarritako sozietate publiko berriak txertatzen diren denbora epe batean (kasu honetan, BIDEAN modu garrantzitsuan)

Txosten hori egin aurretik, eta sindikatuek egindako eskaera bati erantzuna emateko, 2023ko martxoan proposamen juridiko bat aurkeztu zitzaion, NEKPak emandako jarraibideak baliozkotuko zituena. Proposamen horretan, objektiboki komunak diren eta NEKParen esku-menekoak diren gaietan sozietate publikoentzako

eskubideen esparru egokia ezarri zen, baina gaur egun ez dago haien erantzunik.

2023ko abuztuan bidali zitzairen aurretik aipatutako txosten tekniko eta juridikoa sindikatuei. Sindikatuek ez dute horri buruz ezer esan.

2023ko urrian, NEKPak Bulegoen eta Langileen Hitzarmeneko Xedapen Gehigarrian jasotako bide bat irekitzeko proposamena egin zien sindikatuei: Hitzarmena indarrean dagoen bitartean aplikatzen zaien enpresen heterogeneotasunaren jakitun diren alderdiek talde bakoitzerako irizpide uniformeak aplikatzeko formula egokienak aztertuiko dituzte.

Gaur egun, sindikatuak proposamena aztertzen daude eta erantzun baten zain gaude.

Horregatik guztiagatik, gaur egun esparru egokia definitzeko dago, NEKPtik planteatutako gaiei Langileen Legezko Ordezkaritzak eman beharreko erantzunaren zain.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00221. Galdera, Nafarroako enpresa publikoek Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako enpresa publikoek Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañeru andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2023ko abenduaren 11ko 5580 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Nafarroako enpresa publikoetan arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzearen harira (11-23/PES-221). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2018. urteaz gozotik Nafarroako Gobernuareneko sozietate publiko guztiek dugu jokabide kode

etiko bat, jarduketa, balio, printzipio eta jarraibide etikoen adierazpen formala. Kode horrek arau maila du erakundeetan. Hori dela eta, funtzio bakoitzaren egikaritzan aplikatu behar den esparru orokor eta gida gisa jokatzeko du, portaera etiko eta arduratsua bermatzeko asmoz.

Jokabide Kode Etikoaren argitalpenarekin batera, 2018an Kanal Etiko bat eratu zen, pertsona juridikoentzat soilik ondorio penalak dituzten praktikak, portaerak, ekintzak eta ez-egiteak jakinarazteko. Bost urte hauetan ez da jakinarazpenik jaso Nafarroako sozietate publikoetan.

2023an, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen 2/2023ko Legea indarrean jarri zela-eta, arestian aipatutako Kanal Etikoa informazio kanal batek ordezkatu zuen. Informazio kanal hori Nafarroako sozietate publikoek erabil dezakete, bai eta kanpoko edozein pertsonen ere. Informazio kanalaren helburu nagusia da Korporazioko edozein egoera negatibo, irregulartasun eta okerreko portaera goiz detektatzea, egoera horiek modu konfidentzialean egiaztatzea eta dagokion prozedurari ekitea.

Horretarako, 2023ko ekainaren 14an, sozietate publiko guztiek beren webguneetan sarbide publiko informazio kanal bat jarri zuten eskuragarri. Informazio guztia modu homogeen dago eskuragarri

webgune guztietan, webguneko ÉTICA EMPRESARIAL apartatuan (adibidez: <https://www.sociedades-publicasdenavarra.es/es/cpen#etica-empresarial>). Sozietate publikoetako administrazio kontseilu bakoitzak onetsi zuen informazio sistema hori.

Informazio kanala EQS Groupek garatutako kanpoko plataforma batek sostengatzen du. Hala, kanala sozietate publikoen webgune bakoitzean dago eta bertan eskuragarri daude kanalaren politika eta hura kudeatzeko prozedura.

Gaur egun, ez da inolako jakinarazpenik jaso gaitutako kanalen bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 8an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00222. Galdera, Telefónicaren enplegu-erregulazioko espedienteak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Telefónicaren enplegu-erregulazioko espedienteak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Telefónicako EEE posibleari buruz (11-23/PES-222). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilariak ematen duten informazioa:

1.- Nafarroako Gobernuak kontakturik izan al du enpresarekin, jakite aldera aipatu enplegu erregulazioko espedienteak zer ukipen izan lezakeen Nafarroan?

Bai, Nafarroako Gobernuak harreman arina izan du Telefónicarekin. Telefónicatik beti ziurtatu da elkarrizketaren, lankidetzaren eta gizarte bakearen alde eginen dela.

2.- Nafarroako Gobernuak aukeraren bat aurkeztu al du lanpostu horien galera ekiditeko?

Hau estatu-mailako kontu bat da. EEEaren negoziazioa plantillarako hitzarmen kolektibo berriarekin paraleloan gauzatu da eta akordio garrantzitsuak lortu dira konpainiaren eta sindikatuen artean, zeinak dagoeneko argitaratu baitituzte aldeek komunikabideetan.

Prozesu horretan zehar, Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiak eskatzen duen beharrezko sostengua emanen dio enpresari, Nafarroan EEEaren behin betiko proposamena aurkezten bada, araudira egokitzen dela egiaztatu eta frogatzeko, Nafarroako Lan-arloko Agintaritza gisa daukagun eginkizunari jarraikiz.

Hori guztia jakinarazten da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafrañca

11-23/PES-00223. Galdera, “Identifikazio biometrikoko Wallet-a” ezartzeko aukera aztertzeko proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak “Identifikazio biometrikoko Wallet-a” ezartzeko aukera aztertzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, “Identifikazio biometrikoko Wallea” ezartzeko aukeraren inguruko proiektuari buruz (11-23/PES-00223). Hona Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiak, pasa den irailean, NASERTIC enpresa publikoari Eskubide Soziales-tako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko

Departamentuarentzako egiaztagiri biometriko bat eraiki eta ezartzeko lanak agintzea onetsi zuen.

PLENAn argitaratu zen ‘Wallet Digitalaren garapena eta ezarpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasuna-Next Generation funtsekin finantzatua’ proiektuaren baldintza-agiria.

Abenduan, ‘Wallet Digitalaren garapena eta ezarpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasuna-Next Generation funtsekin finantzatua’ proiektuaren kontratazioa VERIDAS Digital Authentication Solution SL enpresari adjudikatu zitzaion.

Duela gutxi, kick off-a burutu da Nafarroako Gobernuaren, NASERTIC enpresa publikoaren eta baldintza-agiriaren lehenengo faseko egikaritza planifikatu eta bultzatzeko enpresa adjudikaziodunaren artean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

